# PROGRAMAZIOA

## Zinema

**Apirilak 7 abril** — **La ruta hacia El Dorado**
Denentzat / Recomendada para todos los públicos.

**Apirilak 28 abril** — **El Grinch**
7 urtetik gorakoentzat / No recomendada para menores de 7 años.

**Maiatzak 12 mayo** — **Manuelita**
Denentzat / Recomendada para todos los públicos.

**Maiatzak 26 mayo** — **Dinosaurio**
Denentzat / No recomendada para menores de 7 años.

**Ekainak 2 junio** — **102 dálmatas**
Denentzat / Recomendada para todos los públicos.

Emanaldi guztiak 17:00etan hasiko dira / Todas las sesiones comenzarán a las 17:00 horas.
Proiekzioak Lugaritz Kultur Etxean izango dira / Las proyecciones se realizarán en el Centro Cultural Lugaritz.
Sarrera / Entrada: 250 pta.

## Antzerkia

| | |
|---|---|
| Apirilak 21 abril | La Fanfarra, "Trinoceria"<br>Lugaritz Kultur Etxea (18:00) |
| Apirilak 26 abril | Txotxongillo, "Herensugea"<br>Altza Kultur Etxea (18:00) |
| Apirilak 28 abril | Teloncillo, "La ramita de hierbabuena"<br>Egia Kultur Etxea (18:00) |
| Maiatzak 6 mayo | Teatro Paraiso, "Kox-kox"<br>Antzoki Zaharra (17:00) |
| Maiatzak 18 mayo | La Fanfarra, "Trinoceria"<br>Altza Kultur Etxea (18:00) |
| Maiatzak 19 mayo | Txotxongilo, "Herensugea"<br>Lugaritz Kultur Etxea (18:00) |
| Maiatzak 26 mayo | Dar-dar, "Alizia bitxikerien lurraldean"<br>Egia Kultur Etxea (18:00) |
| Ekainak 3 junio | Uroc Teatro, "Clown Quijote de la Mancha"<br>Antzoki Zaharra (17:00) |
| Ekainak 8 junio | Gus Marionetak, "Marrubizko printzesa"<br>Altza Kultur Etxea (18:00) |
| Ekainak 16 junio | Txan magoa, "Ekialdetik datorren mago handia"<br>Egia Kultur Etxea (18:00)<br>Altza Kultur Etxea (18:00) |

art&maña






**Apirilak 7 abril**
**Lugaritz Kultur Etxea**
**Centro Cultural Lugaritz**

# La ruta hacia El Dorado

## (*The Road to El Dorado*, 2000)

EEBB / EE.UU. Zuzendariak / Directores: Eric Bergeron, Don Paul
Iraupena / Duración: 80 min.
Marrazki bizidunak / Dibujos animados.

Bi "pícaro" espainiarrek El Dorado aurkituko dute, urrezko hiri mitikoa. Baina Hernan Cortes basatiak hirian dauden altxorrez jabetu nahi du. Bi pertsonaia sinpatiko hauek hiri eder baketsuko biztanleekin bat egingo dute Cortes gaiztoari aurre egiteko.

*Dos pícaros españoles descubrirán la mítica ciudad de oro. Pero el feroz Hernán Cortés quiere apoderarse de los tesoros que contiene la ciudad. Los dos simpáticos personajes se unirán a los pacíficos habitantes de la paradisíaca ciudad para enfrentarse al malvado Cortés.*

Zinema

**Apirilak 28 abril**
**Lugaritz Kultur Etxea**
**Centro Cultural Lugaritz**




# El Grinch

## (*The Grinch*, 2000)

EEBB / EEUU. Zuzendaria / Director: Ron Howard
Aktoreak / Intérpretes: Jim Carrey, Taylor Momsen, Jeffrey Tambor, Christine Baranski
Iraupena / Duración: 105 min.

Gabon-ipuin batean oinarritua, Grinch-en historia kontatzen du filmak. Grinch pertsonaia onartezin bat da, honako honetan Jim Carreyk ezin hobeki interpretatzen duena, bere keinu eta imintzio guztiak jartzen baititu pertsonaiaren zerbitzuan.

*Basado en un famoso cuento navideño, cuenta la historia del Grinch, un "impresentable" personaje, interpretado aquí por un estupendo Jim Carrey, que pone todo su muestrario de gestos y muecas al servicio del personaje.*

Zinema

**Maiatzak 12 mayo**
**Lugaritz Kultur Etxea**
**Centro Cultural Lugaritz**




# Manuelita

## (*Manuelita*, 1999)

**Argentina.**
**Zuzendaria / Director:** Manuel García Ferré.
**Iraupena / Duración:** 86 min.
**Marrazki bizidunak / Dibujos animados.**

Filmaren zuzendaria "El libro gorde de Petete" ospetsuaren sortzailea da. Horrez gainera, dortoka bitxi honen abenturen liburuaren eta gidoiarena ere bai. Dortokak errealitate bihurtu nahi ditu bere ametsak. Filmak marka guztiak hautsi zituen sarrera-salmentatan Argentinan, eta Oscar sarietan bere herrialdearen ordezkari izateko proposatu zuten.

*El director de la película fue el creador del famoso "Libro Gordo de Petete" y es, también, el creador del libro y el guión sobre las aventuras de esta tortuga curiosa, que quiere convertir en realidad sus sueños. La película, que batió todos los records de taquilla en Argentina, fue propuesta para representar a este país en los Oscar.*

Zinema

**Maiatzak 26 mayo**
**Lugaritz Kultur Etxea**
**Centro Cultural Lugaritz**




# Dinosaurio

## (*Dinosaur*, 2000)

**EEBB / EEUU. Zuzendariak / Directores:** Ralph Zondag, Eric Leighton.
**Iraupena / Duración:** 84 min.
**Marrazki bizidunak / Dibujos animados.**

Digitalki aldatutako irudi errealez baliatzen da Disney konpainia dinosauro sinpatikoen talde baten bidaiaren historia kontatzeko. Bizitzeko lekuren baten bila doaz, hondamendi handi batek ordura arte bizileku izan duten parajea desegin eta kide asko hil eta gero.

*Imágenes reales modificadas digitalmente, sirven a la Disney para contar la historia del viaje de un grupo de simpáticos dinosaurios a la búsqueda de un lugar donde vivir, después de que un gran cataclismo haya diezmado a sus familias y destruido el entorno natural en que vivían hasta entonces.*

# 102 Dálmatas

## (*102 Dalmatians*, 2001)




**EEBB / EEUU. Zuzendaria / Director:** Kevin Lima.
**Aktoreak / Intérpretes:** Glenn Close, Ioan Gruffudd, Alice Evans, Gérard Depardieu.
**Iraupena / Duración:** 98 min.

**Ekainak 2 junio**
**Lugaritz Kultur Etxea /**
**Centro Cultural Lugaritz**

Cruella De Vil kartzelatik atera da, erabat formalduta, aurreko filmean (*101 dálmatas*) portaera gaiztoa izateagatik zigorra bete ondoren. Hala dirudi, bederen. Orain animalien aldezle sutsua da. Harik eta Big Ben-eko kanpaiek betiko pertsonaia gorrotagarri bihurtzen duten arte.

*Cruella De Vil sale de la cárcel, tras cumplir una condena por su mal comportamiento en la anterior película,* 101 dálmatas, *completamente reformada. Por lo menos, en apariencia. Ahora es una ferviente defensora de los animales. Hasta que las campanas del Big Ben la convierten en el odioso personaje de siempre.*



Apirilak 21 abril
LUGARITZ KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL LUGARITZ
18:00

Maiatzak 18 mayo
ALTZA KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL ALTZA
18:00

**500 pts.**

# Trinoceria

## La Fanfarra S. L.

Rinaldo antzoki batean bizi den tramoiari zahar bat da. Antzoki horretan ez da obrarik antzeztu aspaldian. Egun batez, Rinaldok eserlekuak ikuslez beteta aurkitzen ditu, eta aktore izatea erabakitzen, lehenengo aldiz bere bizitzan. Agertokia eta tramoia prestatu, txotxongilo baztertu batzuk aurkitu eta antzinako ipuin bat eratzen du, zaldun eta printzesena. Baina Deabrua ez dago prest Rinaldok bere helburua lor dezan, eta eginahalak egiten ditu haren emanaldia hondatzeko.

*Rinaldo es un viejo tramoyista que vive en un teatro donde hace tiempo que no se representa ninguna obra. Un día Rinaldo se encuentra la platea llena de público y decide ser actor por primera vez en su vida. Empieza a preparar el escenario, la tramoya, y descubre unos títeres olvidados y monta un antiguo cuento de princesas y caballeros. Pero el Demonio no está dispuesto a que Rinaldo se salga con la suya e intenta por todos los medios fastidiarle la función.*



Apirilak 26 abril
ALTZA KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL ALTZA
18:00

Maiatzak 19 mayo
LUGARITZ KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL LUGARITZ
18:00



**500 pts.**

# Herensugea

## Txotxongillo Taldea

Behin batean ba omen zen meditxo baten magalean herri koxkor bat. Herriko bizilagunak zoriontsuak ziren, baina... Horrela hasten da gure ipuina. Euskal mitologiako pertsonaia batean oinarrituta (Herensugean, zazpi buruko dragoi batean), euskal baserri giroko mundu eta paisaiaren isla izan nahi du ipuinak. Istorio klasikoetan gertatzen den bezala, hainbat abenturaren ondoren, egia eta maitasuna izanen dira irabazle.

*"Herensugea", la leyenda del dragón de 7 cabezas (relato recogido por Resurrección María Azkue y Joxe Migel Barandiaran), ha sido adaptada y puesta en escena por Txotxongillo Taldea. Un cuento cargado de ternura, que transmite la emoción de los cuentos clásicos, en los que todos aprendemos que la bondad y la justicia terminan por salir victoriosas; y si no, debemos luchar para que así sea.*

Antzerkia



Apirilak 28 abril
EGIA KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL EGIA
18:00

**500 pts.**

# Teloncillo

## La ramita de hierbabuena

(7 urtetik gorakoentzat / *A partir de los 7 años*)

Nola imajinatuko zuen Asteriok halako gorabeherak pasatu beharko zituenik amak mendafina erostera bidali zuenean? Asmakizunak asmatu, probak gainditu, bide eta leku ezezagunetan zehar ibili... Itzal gaiztoko pertsonaiek oztopoak jarriko dizkiote, lagundu nahi diotenek ezin lagunduko diote... Baina etxera bidean aurkituko du soluzioa.

*Nunca se podría imaginar Asterio las peripecias que tiene que pasar para conseguir la ramita de hierbabuena que su madre necesita para hacer el guiso. Deberá resolver enigmas, superar pruebas, andar por caminos y lugares desconocidos... Personajes con muy mala sombra no se lo pondrán fácil, y los que le quieren ayudar no podrán hacerlo. Pero en el camino de regreso a casa hallará la solución.*

Antzerkia

# Kox-kox

## Teatro Paraiso

Maiatzak 6 mayo
ANTZOKI ZAHARRA
TEATRO PRINCIPAL
17:00

Teatro Paraisok Belgikako Théâtre de la Guimbarde konpainiarekin elkarlanean produzituriko ikuskizun hau "Ikusle Txikiak" Europako 2000 Proiektuaren barnean kokatzen da. Pertsonaia nagusia oroimena da, bere haurtzaroaz, bere jaiotzaz eta bera jaio baino lehenagoko gertaerez ere gogoratzen den haurtxoan pertsonifikatua.



**700 pts.**
**500 pts.**
(balkoia balcón)

*Este espectáculo coproducido por Teatro Paraiso y el Théâtre de la Guimbarde de Bélgica se encuadra en el Proyecto Europa 2000. El personaje principal es la memoria, personificada en un niño que recuerda incluso lo acontecido antes de su nacimiento.*



Maiatzak 26 mayo
EGIA KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL EGIA
18:00

**500 pts.**

# Alizia bitxikerien lurraldean

## Dar-dar

Alizia untxi txiki baten atzetik doanean, honi eroritako haizemaile bat itzuli nahian, zulo batean barrena erortzen da. Eroz betetako lurralde zoragarri batean galduko da hala. Bihotzen Erreginak lepoak moztea besterik ez du gogoan, eta untxiak bakarrik eraman diezaioke bere haizemailea.

*Cuando Alicia persigue a un conejo blanco para devolverle el abanico que aquel ha perdido, cae por una madriguera. De esa manera, se extravía en un país maravilloso habitado por extravagantes personajes. La Reina de Corazones no piensa más que en cortar cabezas, y solamente el conejo puede llevarle su abanico misterioso.*

Antzerkia

# Clown Quijote de la Mancha



## Uroc Teatro

Ekainak 3 junio
ALTZA KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL ALTZA
17:00

**700 pts.**
**500 pts.**

Obraren lehen partean, "clown" batzuek, haurrez lagundurik, Kixotea aztertuko dute, eta aktore egokiak aurkitu, jantziak nola egin asmatu, eszenak entseiatu..., hartara haurrek Antzerkiaren sekretuak ikas ditzaten. Bigarren partean, clown konpainiak Kixotea antzezten du, haurrentzat egokituta.

*En la primera parte de la obra, unos "clowns" ayudados por los niños serán los encargados de estudiar el Quijote, encontrar un reparto adecuado, ingeniárselas para construir un vestuario, ensayar las escenas..., de modo que los niños aprendan los secretos del Teatro. En la segunda parte, la Compañía de Clowns representa el Quijote adaptado para niños.*



# Marrubizko printzesa

## Gus marionetak

Ekainak 8 junio
ANTZOKI ZAHARRA
TEATRO PRINCIPAL
18:00

**500 pts.**

Neskato bat, Marta, Margot printzesaren historia irakutzen ari da: zazpi urte bete baino lehen, herensugeari eman beharko diote Margot; bestela, herensugeak erresuma desegingo du. Une horretan Martak logura sentitu eta liburua ixten du. Orduan, Gaston gaztea ateratzen da liburutik, printzesa salbatzeko.

*Una niña, Marta, lee la historia de la princesa Margot, que habrá de ser entregada al dragón antes de cumplir los siete años para que el reino se salve. En un momento dado Marta siente sueño y cierra el libro, pero entonces aparece Gastón, el joven que se ha ofrecido a salvar a la princesa, y le pide que siga leyendo.*

Antzerkia



Ekainak 16 junio
EGIA KULTUR ETXEA
CENTRO CULTURAL EGIA
18:00

# Ekialdetik datorren mago handia

**500 pts.**

## Txan magoa

Txan magoak hainbat herrialdetako magiaren erakusgarriak eskaintzen ditu, bere hitz magikoen agindura: "Artxila murtxila". Metro gutxitan, hainbat mirari txiki segidan ikusteko aukera. Inprobisazioan oinarritutako ikuskizuna, egokia hala txikienentzat nola guraso eta aiton-amonentzat: jendeak zer nahi, huraxe eskaintzen du Txanek. Azken jokoan, Raki laguna agertzen da, pertsonaia bitxi bat.

*Txan magoa ofrece la posibilidad de ver una serie de pequeños milagros en un espacio reducido, muestras de la magia de otras partes del mundo, al conjuro de sus palabras mágicas: "Artxila murtxila. Espectáculo basado en la improvisación, que se desarrolla según las demandas e implicación de los espectadores. Aapto para todos, niños, padres y abuelos. Un dato a tener en cuenta: en el último número Txan actúa con su amigo Raki, un personaje curioso.*